



Errusiar soldaduak, atsedean hartzen, Mozdokeko basean, Txetxeniara abiatu aurretik.

Astebeteko epea jarri du Moskuk Grozni menderatzeko

Txetxeniako hiriburua hartzeko planaren berri eman du

Agentziak / Grozni-Mosku

Errusiako agintariek ziurtatu dute astebeteko epean Grozni erabat mendean izango dutela. Txetxeniako hiriburua hartzeko taktikaren berri ere eman zuen Itar-Tass

ITAR-TASSEN iturriaren arabera, azken egunotan soldadu errusiarrek Grozni kanpoaldeko beren posizioak sendotu nahian dabiltza eta muinoak mendean hartu nahi dituzte, handik gerrillari txetxeniarrak hobeto kontrolatzeko. Aldi berean, bonbardaketa gogorrak egiten dituzte Aire Armadak eta artilleriak, esploratzaileek emandako informazioetan oinarrituta txetxeniarren gotorlekua txikitzeko. Gero, zultzaileak, morteroen eta tiratzaileen babesaz, «segurtasun bideak» irekitzen saiatuko dira defentsak txikitu

behar dituzten unitate mugikorrei bidea irekitzeko.

Planaren arabera beti, «segurtasun iraganbide» horien bitartez armiamarsare baten antzekoa egin nahi dute errusiarrek, eta hori amaitzen denean hasiko dute soldaduek «kalez kaleko garbiketa».

Errusiako Armadaren arabera 2.500 gerrillari ari dira Txetxeniako hiriburua babesten. Azken egunotan aurrez aurreko borroka gogorrak gertatu dira Grozniko kanpoaldeko auzoetan. Borroka horietan 1.200 soldadu errusiar hil dituztela

agentziak, iturri militar bat aipatuta. Txetxenia osoa mendean hartzea hiru asteko lana izango dela ere esan du Viktor Kazantsev kanpainaren arduradun militarra. Txetxeniako Gobernuarentzat, ostera, gerra hasi berria da.

esan du Vaja Arsanov Txetxeniako lehendakariordeak, baina informazio hori egiaztatzerik ez dago.

Errepublikaren hegoalde menditsua dago orain txetxeniaren esku, baina hor ere sartzen ari dira errusiarrek, hiru astetan menderatzeko asmoz. Aslan Maskhadov Txetxeniako presidentearak, ostera, azpimarratu du Grozni ez ezik mendialdea ere babestuko duela eta gerra hasi besterik ez dela egin. Kazantsevek erantzun du gerrillari askok Georgiara egin dutela ihes, borroka egin gabe.

l a b u r r e a n

A L E M A N I A

■ Helmut Kohlek dioenez, ez ditu zabalduko CDUri sekretupean dirua eman ziotenen izenak

HELMUT KOHL-EK uko egin zion atzo CDU bere alderdiari azken bi hamarkadetan dirua sekretupean eman ziotenen zerrenda zabaltzeari. CDUko oraingo zuzendaritzak berak exijitu zion asteazkenean izenak emateko, era horretara alderdiari kalte gutxiago egingo diolakoan. *Bild* egunkariak gaur kaleratuko duen elkarrizketan, Kohlek gogorarazi du izenak ez jakinarazteko hitza eman zuela. Hain zuzen *Bild*-ek gaur kaleratu duen 68.000 lagunen inkesta batek dioenez, % 58,4k uste dute kantziler ohiak hitza bete behar dela.

■ Andrea Klump RAFeko ustezko kidea Alemaniara estraditatu du Austriak

AUSTRIAKO agintariek Alemaniako esku utzi zuten atzo Andrea Klump RAF Armada Gorriaren Frakzioko ustezko kidea. Klump azaroan atxilotu zuten Vienan, Horst Ludwig Meyer bere taldekide eta bikotekidearekin zegoela. Polizia austriarrak tiroz hil zuen Meyer. Alemanian, Deutsche Bankeko presidente Alfred Herrhausen hilketan parte hartu izana leporatzen diote, besteak beste.

E S P A Ñ I A

■ Legebiltzarrerako hauteskundeak ziur aski martxoaren 12an izango dira

ESPAINIAKO Legebiltzarrerako hauteskundeak ziur aski martxoaren 12an izango direla jakinarazi zuen atzo Josep Pique Gobernuak bozeramaileak. Espainiako Diputatuen Kongresua eta Senatua dagoeneko oporretan daude eta ez dira, hortaz, berriro bilduko legegintzaldi honetan. Aurreko hauteskundeak 1996ko martxoaren 3an izan zirenez, legegintzaldi osoa beteko du Jose Maria Aznar presidentearak.

I T A L I A

■ Diputatuen Ganberaren sustengua lortu du Massimo D'Alemaren bigarren Gobernuak

ASTEAZKEN gauean Senatuaren aldeko botoa lortu ondoren, Diputatuen Ganberaren sustengua eskuratu zuen atzo Massimo D'Alemaren bigarren Gobernuak. Exekutibo berriak aldeko 310 boto, aurkako 287 eta 18 abstentzio eskuratu zituen. Ez da ziurra Gobernu berriak legegintzaldia amaitu ahal izango duen, gehiengo osoa ziurtatzen dioten 316 diputatuak lortzerik izan ez zuelako. Eskuineko oposizioak ez ezik, Lega Nord eta Rifondazione Comunistak ere aurkako botoa eman zuten.

M A Z E D O N I A

■ Barne krisia gaindituta, Gobernu osatuko du berriz Georgievski lehen ministroak

LJUPCO GEORGIEVSKI lehen ministroak bere Gobernuaren dimisioa aurkeztu zuen atzo eta beste exekutibo bat osatzeko baimena eskatu zion Boris Trajkovski presidenteari. Azken asteetan barne krisiak jota egon da Gobernuak, baina arazoak konpondu dituzte. Koalizioko kide albaniarrek (DPA) lortu dute Gobernuak albanierazko irakaskuntza bermatzea.